

# Desberdintasun sozialak daude euskal herritarren hortzetako osasunean, gizarte hierarkian den posizioa zenbat eta baxuagoa izan orduan eta okerragoa delarik

Yolanda González-Rábago  
eta Unai Martín



Gizartean posizio baxuagoa duten herritarren artean hortzetako osasun on gutxiago ageri da, bai klase sozialen arabera aztertuta, bai hezkuntza mailaren arabera, bizitokiak dituen gabeziak kontuan hartuta edo etxeko zailtasun ekonomikoen arabera.

**Iradokitutako aipua:** GONZÁLEZ-RÁBAGO, Y. MARTIN, U. (2019) *Desberdintasun sozialak daude euskal herritarren hortzetako osasunean, gizarte hierarkian den posizioa zenbat eta baxuago izan orduan eta okerragoa delarik.*

OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/wp-content/uploads/2020/06/4eus.pdf>




Hortzetako osasuna garrantzi gutxiagoa duen osasun eremutat hartu ohi da normalean, alabaina inpaktu handia du adin guztietako pertsonen bizitza kalitatean. Osasun mota hori hurrengan eta nerabeengan aztertu izan da gehienbat, ez horrenbeste helduegan. Beste osasun adierazleetan nola, hainbat azterketek erakusten dute desberdintasun sozialak ematen direla hortzetako osasunean ere, eta hortz-osasun okerragoa dela talde baztertuenetan. Euskadiko herritarren hortzetako osasunaren egoera eta horretan ematen diren desberdintasunak aztertzen dira ondoren, aho-hortzetako osasunari buruzko autobalorazio datuetatik abiatuta eta desberdintasun sozial mota ezberdinetan banatuta: klase soziala, hezkuntza maila, bizitokiaren gabezia sozioekonomikoaren maila, eta hilabete amaierara iristeko den zailtasun ekonomikoa.

Euskal herritarrek, oro har, hortzetako osasun ona dute, eta biztanleriaren %80 inguruk uste du aho-hortzetako osasun ona edo oso ona duela, gizonetzkoa edo emakumezkoa izan ez delarik alderik (gizonen %79,8k eta emakumeen %80,4k).

Klase sozialen arabera desberdintasunak aztertzean, ordea, hortz-osasun okerragoa ageri da pertsonak zenbat eta klase sozial baxuagokoak direnean. Hots, klase sozial altuenekoen artean, herritarren %85 baino gehiago dira hortzetako osasun ona dutenak, bai gizonetzkoetan bai emakumezkoetan, baina proportzio hori 10 puntu portzentual jaisten da klase sozial baxuenekoen artean (gizonen %73,4 eta emakumeen %74,9), proportzioa apurka-apurka jaisten doalarik euren gizarte-hierarkia behera doan heinean.

### 1. GRAFIKOA. HORTZETAKO OSASUN EGOERA ONAREN ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, KLASE SOZIALA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




I: KLASE SOZIAL ALTUENA - V: KLASE SOZIAL BAXUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAE0IN (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA


Hortz-osasun hobea ageri dute hezkuntza maila handiagoa duten pertsonen ere, hots, unibertsitate ikasketak dituzten pertsona gehiago daude euren hortzetako osasuna ona delakoan hezkuntza maila baxuagokoekin artekoetan baino. Kasu honetan, beheko bigarren mailako ikasketak dituztenek ageri dute hortzetako osasun okerrera. Horietan, soilik %68 dago hortz-osasun ona delakoan, lehen mailako edo gutxiagoko ikasketak dituztenen %75en edo goi mailako ikasketak dituztenen %80ren aldean.

## 2. GRAFIKOA. HORTZETAKO OSASUN EGOERA ONAREN ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, HEZKUNTZA MAILA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018




Bizitokiaren gabezia sozioekonomikoen arabera desberdintasunei dagokionez ere patroi bera agertzen da, ez bada ere aurreko kasuetan bezain nabarmena. Hala, gabezia gutxiagoko tokietan bizi direnek hortzetako osasun hobea dute, bai gizonezkoek bai emakumezkoek.

## 3. GRAFIKOA. HORTZETAKO OSASUN EGOERA ONAREN ADINAREN ARABERAKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, BIZITOKIAREN GABEZIA SOZIOEKONOMIKOA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. EUSKADI 2018



Azkenik, etxeko zailtasun ekonomikoetatik eratorritako desberdintasunez denaz bezainbatean, ondorengo grafikoan erakusten da nola den okerragoa hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituzten pertsonen hortzetako osasuna, baxuagoa delarik hortzetako osasun ona duela diotenen portzentajea. Kasu horretan, aldea nahiko handia da, ia 15 puntu portzentualen aldea ematen baita gizonezkoengan eta ia 7koa emakumezkoengan. Esan nahi baita, hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituzten gizonen %18 gutxiagok eta emakumeen %7 gutxiagok diote hortz-osasun ona duela zailtasunik ez dutenen aldean.

#### 4. GRAFIKOA. HAUTEMANDAKO HORTZETAKO OSASUN ONAREN PREBALENTZIA, ETXEAN HILABETE AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUN EKONOMIKOEN ETA SEXUEN ARABERA. EUSKADI 2018



- HILABETE AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUNIK GABE
- HILABETE AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUNEKIN

ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAE01N (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Ondorioz, bada, baztertuen diren pertsonak hortzetako osasun okerragoa dute egoera hobekoan direnen aldean, edozein dela ere kontuan hartutako desberdintasun soziala.



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)